

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuak, EkoBizi du izena. Gimnasioak autosufiziente bilakatzean datza. Gimnasioetan jada dauden bizikletetan, motor baten bidez funtzionatzen duten sistema batzuk instalatuko genituzke. Era honetan, gimnasioko bezeroek bizikletak erabiltzean sortzen duten energia, baterietan gordeko litzateke gero bertako beste gauzetarako erabiltzeko (adibidez, argirako edo dutxetako ura berotzeko).

Nahiz eta hasieran proiektu pixka bat garestia iruditu, denborarekin amortizatuko litzateke, lehen aipatutako gastuetan asko aurreztuko luketelako.